2026ODDD0017

**LEHIA BIDEZKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA: Astigarragan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten elkarte, pertsona juridiko edo fisikoentzako dirulaguntza**

**1. OINARRIA. Xedea eta aplikazio eremua.**

Oinarri hauen xedea da, lehia bidezko erregimenean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko dirulaguntza lerro honen deialdia arautzea: *Astigarragan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten elkarte, pertsona juridiko edo fisikoentzako 2026 urterako dirulaguntza.*

Deialdi honen xedea da pertsona fisiko eta dirua irabazteko asmorik gabeko pertsona juridiko, elkarte edota erakundeei Berdintasun arloan eman beharreko laguntzen programa arautzea, hain zuzen ere, Astigarragako herrian emakumeen, neska gazteen, neskatilen eta gizonen, mutil gazteen eta mutikoen berdintasuna sustatzeko helburu eta xedearekin lotutako programa, proiektu eta jarduerak aurrera eramateko.

Horretarako, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta udal-aurrekontuko 1 1000.481.01.327.11 2026 «Berdintasuna: dirulaguntzak» kontu-sailean 4.000 euro ditu Udalak.

Jasotako eskaeren kopurua dela eta beharrezkotzat jotzen bada, zenbateko hori handitu ahal izango da, aurrekontu-kredituak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatu ondoren, eta ez da beharrezkoa izango beste deialdi bat egitea.

**2. OINARRIA. Onuradunak.**

Dirulaguntza lerro honetarako onuraduntzat honako hauek hartuko dira:

- Pertsona fisikoak Astigarragako herrian emakume, neska gazte, neskatila eta

**CONVOCATORIA DE AYUDAS EN RÉGIMEN DE CONCURRENCIA: subvención dirigida a asociaciones y/o personas jurídicas o físicas que fomenten la igualdad de mujeres y hombres en Astigarraga**

**BASE 1ª. Objeto y ámbito de aplicación.**

Las presentes bases tienen por objeto regular la convocatoria de la siguiente línea de subvenciones para el fomento de la igualdad de mujeres y hombres en régimen de libre concurrencia: *subvenciones a asociaciones y/o personas jurídicas o físicas que fomenten la igualdad de mujeres y hombres en Astigarraga para el 2026.*

Es objeto de la presente convocatoria la regulación del programa de ayudas a conceder a personas físicas y asociaciones y/o personas jurídicas sin ánimo de lucro, para la realización de programas, proyectos y actividades relacionadas con los objetivos y fines de promoción de la igualdad de mujeres, chicas jóvenes, niñas y hombres, chicos jóvenes y niños en el municipio de Astigarraga.

Para ello, el Ayuntamiento cuenta con 4.000 euros en el Plan Estratégico de Subvenciones y en la partida 1 1000.481.01.327.11 2026 «Subvenciones Igualdad» del presupuesto municipal.

En el caso de que el volumen de solicitudes recibidas así lo aconseje, dicho importe podrá ser incrementado, previa modificación de los créditos presupuestarios y del Plan Estratégico de Subvenciones, sin que sea necesaria una nueva convocatoria.

**BASE 2ª. Personas beneficiarias.**

Tendrán la consideración de beneficiarias de esta línea subvencional las siguientes:

- Las personas físicas que realicen actividades de promoción de la

gizonen, mutil gazte eta mutikoen berdintasuna sustatzeko jarduerak garatzen dituztela egiaztatzen dutenak eta/edo Astigarragan erroldatuta daudenak.

- Dirua irabazteko asmorik gabeko pertsona juridiko, elkarte edota erakundeak, Astigarragan egoitza edo ordezkaritza iraunkorra dutenak eta/edo Astigarragako herrian emakume, neska gazte, neskatila eta gizonen, mutil gazte eta mutikoen berdintasuna sustatzeko jarduerak garatzen dituztela egiaztatzen dutenak.

igualdad de mujeres, chicas jóvenes, niñas y hombres, chicos jóvenes y niños en el municipio de Astigarraga y/o empadronadas en Astigarraga.

- Las asociaciones y/o personas jurídicas sin ánimo de lucro que realicen actividades de promoción de la igualdad de mujeres, chicas jóvenes, niñas y hombres, chicos jóvenes y niños en el municipio de Astigarraga y/o que tengan su sede establecida en Astigarraga.

Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 12. artikuluan zehazten da dirulaguntzen onuradun izan ezingo direnak (ordenantza eskura dago Udalaren webgunean: https://www.astigarraga.eus/eu/beste-ordenantza-batzuk)

En el artículo 12 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones (disponible en la página web del Ayuntamiento: https://www.astigarraga.eus/es/otras-ordenanzas) se señalan las personas que no podrán ser beneficiarias de subvenciones.

**3. OINARRIA. Diruz lagunduko diren jarduerak.**

**BASE 3ª. Actividades que se subvencionan.**

Ondorengoak dira dirulaguntza jaso dezaketen jarduera eta programak:

Las actividades y programas subvencionables son las siguientes:

a) Emakumeen, neska gazteen eta neskatilen ahalduntzea eta haien autonomia, independentzia eta garapen integrala bultzatzeko helburua dutenak, batez ere diskriminazio anizkoitza edota gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan daudenen ahalduntzea.

a) Actividades y/o programas orientados a impulsar el empoderamiento de las mujeres, chicas jóvenes y niñas, su autonomía, independencia y su desarrollo integral, especialmente el empoderamiento de aquellas en situación de discriminación múltiple y/o en situación o en riesgo de exclusión social.

b) Emakume, neska gazte, neskatilen eta gizonen, mutil gazte eta mutikoen arteko berdintasunaren aldeko elkartegintza sustatzeko helburua duten jarduerak eta programak.

b) Actividades y/o programas dirigidos a fomentar el asociacionismo en favor de la igualdad de mujeres, chicas jóvenes, niñas y hombres, chicos jóvenes y niños.

c) Berdintasunaren aldeko prestakuntza ekintzak, hainbat alorretan: kulturan, osasunean, kirolean, gizarte-partaidetzan eta abarretan, eta, batez ere, Astigarragako elkarteetan genero ikuspegia txertatzea xede dutenak.

c) Acciones formativas en materia de igualdad en los diferentes ámbitos, cultura, salud, deporte, participación social etc. Especialmente aquellas dirigidas a incorporar la perspectiva de género en las asociaciones de Astigarraga.

d) Emakumeek, neska gazteek eta neskatilek bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta

d) Actividades y/o programas para potenciar la participación de las mujeres, chicas jóvenes y

kulturalean parte hartzea sustatzeko helburua duten jarduerak eta programak, bereziki diskriminazio anizkoitza edota gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeak kontuan hartuta.

niñas en todos los ámbitos de la vida política, económica, social y cultural, teniendo especialmente en cuenta a mujeres que se encuentran en situación de discriminación múltiple y/o en riesgo de exclusión social.

e) Emakume, neska gazte, neskatila eta gizonen, gizon gazte eta mutikoen berdintasunari, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren prebentzioari eta horren aurkako borrokari, eta genero rolak eta estereotipoak kentzeari buruzko sentsibilizazioa eta informazioa zabaltzeko jarduerak.

e) Actividades de sensibilización y de información sobre la igualdad de mujeres, chicas jóvenes, niñas y hombres, chicos jóvenes y niños la prevención y lucha contra la violencia hacia ellas, así como la eliminación de roles y estereotipos de género.

f) Emakumeen, neska gazteen eta haurren eskubideak aitortzeko eta hedatzeko jarduerak.

f) Actividades de reconocimiento y difusión de los derechos de las mujeres, chicas jóvenes y niñas.

g) Emakumeek, emakume-taldeek eta mugimendu feministak historian zehar eta gure egungo gizartera arte egindako ekarpenak aitortzeko eta berreskuratzeko helburua duten jarduerak.

g) Actividades dirigidas al reconocimiento y recuperación de las aportaciones de las mujeres, de los grupos de mujeres y del movimiento feminista a lo largo de la historia y hasta nuestra sociedad actual.

h) Berdintasunaren alde gizonek, gizon gazteek eta mutikioek duten konpromisoa sustatzea xede duten sentsibilizazio, prestakuntza eta informazio jarduerak, bai eta gizonen erantzunkidetasuna etxeko eta zaintzako zereginetan, laneko eta etxeko balio-aldaketa eta, genero rol eta estereotipoak kentzea sustatzea xede dutenak ere.

h) Actividades de sensibilización, formación y/o información dirigidas a fomentar el compromiso de los hombres, chicos jóvenes y niños en favor de la igualdad, así como actividades que fomenten la corresponsabilidad de los hombres en las tareas domésticas y de cuidado; el cambio de valores en el ámbito laboral y doméstico y la eliminación de roles y estereotipos.

i) Gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkartearen jarduera arruntaren mantentzea.

i) Mantenimiento de la actividad ordinaria de la Asociación a favor de la igualdad de mujeres y hombres.

j) Astigarragan sustraiturik dauden ikuskizunak, ospakizunak eta urteurrenak antolatzea ere diruz lagundu daitezke, genero berdintasuna sustatzea helburu izanez gero.

j) Podrán subvencionarse la organización de eventos, celebraciones, aniversarios, que se consideren de arraigo demostrado en Astigarraga, cuyo objetivo sea el fomento de la igualdad de género.

k) Diruz lagunduko zaie gizon eta emakumeen benetako berdintasunaren eremuan Astigarragan lan egiten duten taldeei eta talde horietako pertsonei, prestakuntza ikastaroetan, mintegietan eta kongresuetan parte hartzen dutenean, beti ere horiek genero berdintasunarekin lotuta badaude.

k) Se podrá subvencionar la participación en cursos de formación, seminarios y congresos, que tengan relación con la igualdad de género, a los colectivos o personas pertenecientes a los mismos que trabajen activamente en Astigarraga en el ámbito de la igualdad real de hombres y mujeres.

**4. OINARRIA. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak.**

**BASE 4ª. Cuantía de la subvención y gastos subvencionables.**

Deialdi honetan guztira 4.000 euro daude proiektuak diruz laguntzeko eta diruz lagunduko diren proiektuak 2026. urtean gauzatu beharko dira (2026eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte).

Diruz lagunduko dira aurkeztutako proiektuaren % 10a gainditzen ez duten gastu hautagarriak.

Gastu hautagarriak dira jarduerak zuzenean dakartzanak; esate baterako, elkartearen mantentzea, dokumentazioa, materialak, prestakuntza, inprenta, zabalkundea, laguntza teknikoa, joan-etorriak, aretoak alokatzea, eta abar.

Eskatzaileari ez zaizkio inolaz ere diruz lagunduko elkartearen pertsonal-gastuak.

Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako beste edozein administraziok edo erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baina gainfinantzaketa debekatuta dago.

**5. OINARRIA. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.**

Eskaerak aurkeztu daitezke deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, 2026ko irailaren 30a bitarte

Eskaerak aurkeztu beharko dira Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera. Modu horretan aurkezten ez direnak, ez dira aintzat hartuko.

**6. OINARRIA. Eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentuak.**

Dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Eskabide normalizatuak osatuta: E093 Eskaera-orria eta E097 Hizkuntza irizpideen betetze-maila adierazten

En esta convocatoria se dispone de 4.000 € para subvencionar proyectos y los proyectos subvencionados deberán ejecutarse en el año 2026 (del 1 de enero al 31 de diciembre del 2026).

Se subvencionarán los gastos indirectos siempre que no superen un máximo del 10 % del total del proyecto presentado.

Se considerarán gastos indirectos aquellos gastos derivados indirectamente de las actividades a desarrollar, como pueden ser: mantenimiento de la asociación, materiales, formación, imprenta, difusión, desplazamientos, alquiler de salas, etc.

En ningún caso serán subvencionables los gastos de personal de la entidad solicitante.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquiera Administraciones o entes públicos o privados, si bien queda prohibida la sobrefinanciación.

**BASE 5ª. Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.**

Las solicitudes podrán presentarse desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 30 de septiembre de 2026.

Las solicitudes deberán presentarse de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 17 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones. Las que no se presenten de esa forma no serán tenidas en cuenta.

**BASE 6ª. Solicitud y documentación a presentar.**

Documentación a presentar:

- Instancias normalizadas rellenadas: E093 Hoja de solicitud y E097 Documento que indica el grado de

duen agiria (www.astigarraga.eus Udalaren webgunetik deskargatu ahalko direnak).

- Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 15. artikuluan eskatutakoak.
- Eskatzailea pertsona juridiko bat denean Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren kopia eta pertsona fisiko bat denean nortasun-agiriaren kopia.
- Foru ogasuneko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztagiriak, datu horiek Udalak NISAE bidez agiri horiek kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea erabili bada bakarrik. Entitateen kasuan gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro orokorrean inskribatuta daudela adierazten duen egiaztagiria, aurka egiteko eskubidea erabili bada bakarrik.
- Eskaria egiten duen entitate edo pertsonak irekitako kontu korrontearen titularitatea ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxa horrek emaniko agiria.
- Berdintasun plana, halakorik badu.

Udalak, eskatzaileak horretarako baimena emanez gero, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez honakoak egiaztatuko ditu:

- Foru Ogasuna - Zerga-betebeharrak ordainduta izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra – Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorra – Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzea.

Eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen horiek zuzenean egiaztatzeko, dagokion ziurtagiri eta agiriak aurkeztu beharko ditu dirulaguntza eskaerarekin batera.

Izaera pertsonaleko datuak babestu eta erabiliko dira arlo horretako araudiak eta

cumplimiento de los criterios lingüísticos (que podrán descargarse de la web del Ayuntamiento, www.astigarraga.eus).

- La documentación exigida en el artículo 15 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.
- Copia del Código de Identificación Fiscal, si la solicitante es una pertsona jurídica y copia del Documento Nacional de Identidad, si es una persona física.
- Justificantes de estar al corriente en sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral y para con la Seguridad Social, sólo si se ha ejercido el derecho de oposición. Para las entidades, documento acreditativo de hallarse inscrita en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, sólo si se ha ejercido el derecho de oposición.
- Certificado para verificar la titularidad de la cuenta corriente del banco o caja de ahorros abierta por la entidad o persona solicitante.
- Plan de Igualdad, si lo tuviere.

El Ayuntamiento, previa autorización del solicitante, comprobará a través del nodo de interoperabilidad NISAE:

- Hacienda Foral - Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias.
- Tesorería General de la Seguridad Social – Estar al corriente en las obligaciones de pago a la Seguridad Social.
- Registro General de Asociaciones del País Vasco – Acreditar hallarse inscrita en el mismo.

En el caso de que la solicitante no autorice al Ayuntamiento la comprobación directa de los datos, deberá aportar junto con la solicitud de subvención los certificados y documentos correspondientes.

La protección y tratamiento de los datos de carácter personal se realizará conforme a la normativa vigente en la materia y al artículo

Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 15.4 artikuluari jarraiki.

## 7. OINARRIA. Akats zuzentzea

Eskaerak deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesatuari gehienez 10 laneguneko epe luzaezin batean zuzentzeko eskatuko zaio, eta gainera, egiten ez badu, bere eskaerari uko egin diola iritziko zaiola jakinaraziko zaio, aurrez Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzaren 16. artikuluan aurreikusten dituen baldintzen araberako erabakia hartuta.

## 8. OINARRIA. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak.

1. Berdintasuna, elkarbizitza eta partaidetza saila arduratuko da eskaera izapidetzeaz, egingo dena Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 18. artikuluari jarriki.

2. Eskaerak balioetsiko dira gehienez ere 100 punturekin. Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 10. artikuluari jarraiki, eskaerak honako irizpideen arabera baloratuko dira:

a) Berdintasun-irizpideak (gehienez 75 puntu):

- Aurkeztutako programaren egitura eta kalitate teknikoa, honi gehituz; dagoen beharrari buruzko aldez aurreko azterketa, helburuen formulazioa, erabiltzen den metodologia, proposatutako jarduerak, aurrekontua, kronograma, aurreikusitako eragina (pertsona hartzaileak) eta jarraipen eta ebaluazioa egiteko bitartekoak (gehienez 20 puntu).
- Programa edo jardueren diseinu eta gauzatzean kontuan hartzea askotariko bereizkeria jasaten duten eta gizarte bazterketa arriskuko egoeran dauden emakumeen egoerak eta beharrak

15.4 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

## BASE 7ª. Subsanación de defectos

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en las bases de convocatoria, se requerirá a la interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días hábiles, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y el artículo 16 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

## BASE 8ª. Órganos competentes para la tramitación y resolución del procedimiento.

1. El Departamento de Igualdad, convivencia y participación será el encargado de tramitar la solicitud, que se realizará de acuerdo con el artículo 18 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

2. Se valorarán las solicitudes hasta un máximo de 100 puntos. De acuerdo con el artículo 10 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, las solicitudes se valorarán según los siguientes criterios:

a) Criterios de igualdad (hasta 75 puntos):

- La estructura y calidad técnica del programa presentado en cuanto al análisis previo de la necesidad existente, formulación de objetivos, metodología propuesta, actividades propuestas, presupuesto, cronograma, impacto previsto (personas destinatarias) y mecanismos de seguimiento y evaluación (hasta 20 puntos).
- La consideración en el diseño y ejecución de los programas o actividades, las diferentes situaciones y necesidades de las mujeres que sufren discriminación múltiple y se encuentran

(gehienez 10 puntu).

- Erakundeak generoaren inguruko barne politika izatea (barne-araudian edo estatutuetan zehaztuta) (gehienez 5 puntu).
- Emakumeen, neska gazteen eta neskatilen kontrako indarkeria matxistaren sentsibilizaziorako edota deuseztapenerako programak eta jarduerak egitea (gehienez 10 puntu).
- Laguntza beharrean dauden emakume zaintzaileen egoera ikusgarri egiten duten sentsibilizazio jarduerak egitea, eta pertsona hauek dauden egoera hobetzen laguntzen duten jarduerak edo programak aurrera eramatea (gehienez 10 puntu).
- Emakume elkarteen arteko lankidetza sareak sustatzea, instituzioek emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko sortu dituzten organoetan emakumeen partaidetza sustatzea bezalakoak (gehienez 5 puntu).
- Gizonezkoek etxean, familian eta gizartean duten erantzukizun eta ardura sustatzera bideratutako sentsibilizazio jarduerak egitea (gehienez 10 puntu).
- Jarduera antolatzerakoan bizitza pertsonala, soziala eta familiakoa kontziliatzen laguntzen duten neurriak hartzea (ordutegiak, zerbitzuak edo kontziliaziorako laguntza zehatzak, etab.) (gehienez 5 puntu).

b) Hizkuntza-irizpideak (gehienez 10 puntu):

- Dagokion jarduera eremuan euskararen erabilera sustatzea.

c) Bestelako irizpideak (gehienez 15 puntu):

- Biztanleria hartzaileak aurkeztutako jarduera edota programetan izango duen partaidetza (gehienez 10 puntu).
- Aurkezten diren jarduerak garatuko diren tokien irisgarritasuna (gehienez 5

en riesgo o situación de exclusión social (hasta 10 puntos).

- La entidad cuenta con una política de género interna (incluida en la normativa interna o en sus estatutos) (hasta 5 puntos).
- La realización de programas y actividades para prevenir y eliminar la violencia contra las mujeres, chicas jóvenes y niñas así como para apoyar a sus víctimas (hasta 10 puntos).
- La realización de actividades de sensibilización que visibilicen la situación de las mujeres cuidadoras de personas dependientes, y actividades o programas que intervengan para mejorar la situación en la que éstas se encuentran (hasta 10 puntos).
- El fomento de redes de colaboración entre asociaciones de mujeres y de la participación en los órganos creados por las diferentes instituciones para la promoción de la igualdad de mujeres y hombres (hasta 5 puntos).
- La realización de actividades de sensibilización orientadas a fomentar la corresponsabilidad de los hombres en el ámbito doméstico, familiar y social familiar (hasta 10 puntos).
- La adopción de medidas que faciliten la conciliación de la vida personal, social y familiar para la elaboración de dicha actividad (horarios, servicios o apoyos concretos a la conciliación, etc.) (hasta 5 puntos).

b) Criterios lingüísticos (hasta 10 puntos):

- El fomento dentro de su ámbito de actuación de la utilización del euskara

c) Otros criterios (hasta 15 puntos):

- Participación de la población destinataria en las actividades y/o programas presentados (hasta 10 puntos).
- La accesibilidad de los lugares donde se realicen las actividades presentadas

puntu).

3. Deialdi honetako 3.000 eurotik gorako dirulaguntzak tokiko gobernu batzarrak ebatziko ditu, eta gainerako ebazpenak alkatearen dekretuz onartuko dira.

4. Hamabost egun balioduneko epean – dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita –, berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez bazaio, dirulaguntza onartu egin dela ulertuko da, bai ebazpenean eta deialdiaren oinarrietan adierazitako baldintza ekonomikoei dagokienez, bai gainerako betekizun edo alderdi guztiei dagokienez.

**9. OINARRIA. Onuradunen betebeharrak.**

Onuradunak betebehar hauek ditu:

- Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 21. artikuluan adierazitakoak.
- Gutxienez jardueraren pertsona onuradunen % 40a emakumezkoak izan behar dute, gizonezkoei zuzendutako ekintzetan salbu

**10. OINARRIA. Ordainketa**

Laguntzaren zenbatekoa ordainduko da Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 22. artikuluaren arabera.

Eskaera egiten denean ekintza oraindik burutu gabe badago, eta ondorioz, ezin bada eskaerarekin batera justifikatu, Udalak ofizioz % 70eko aurrerakinaren ordainketa izapidetuko du.

Ordenantzan aurreikusitako beste aurrerakinak onartzeko, aurrez berariazko eskaera egin beharko da, dirulaguntza eskaerarekin batera, edo aurrerago.

**11. OINARRIA. Justifikazioa.**

Laguntza justifikatu beharko da Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 23. artikuluari jarraiki eta

(hasta 5 puntos).

3. Las subvenciones cuya cuantía supere los 3.000 euros se resolverán por la Junta de Gobierno Local y el resto se resolverá por Decreto del Alcalde.

4. Si en el plazo de quince días hábiles – a contar desde la notificación de la resolución de la concesión de la subvención – no se renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, tanto en los términos económicos, como en todos los demás requisitos o aspectos, señalados en la resolución y en las propias bases de la convocatoria.

**BASE 9ª. Obligaciones de las personas beneficiarias.**

Son obligaciones de la beneficiaria:

- Las señaladas en el artículo 21 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones
- Al menos un 40 % de las personas beneficiarias de la actividad deberán ser mujeres, excepto en aquellas actividades dirigidas a hombres.

**BASE 10ª. Pago.**

El importe de la ayuda se abonará de acuerdo con el artículo 22 de la Ordenanza Municipal de la subvención.

Si en el momento de la solicitud la acción no se ha realizado, por lo que no se puede justificar junto con la solicitud, el Ayuntamiento tramitará el pago del anticipo del 70% de oficio.

La aprobación de otros anticipos previstos en la Ordenanza requerirá la previa solicitud expresa, junto con la solicitud de subvención o posteriormente.

**BASE 11ª. Justificación**

La subvención se deberá de justificar de acuerdo al art. 23 de la Ordenanza Municipal

epe hauetan:

- Ekintza zehatzetarako laguntzak (eguneko ekintzak, jaietako jarduerak...) azken ekintza amaitu eta 30 eguneko epean aurkeztu beharko dute zuriketa osoa.
- Urteko jarduerak edo ekintzak, hurrengo urteko urtarrilaren 15erako aurkeztu beharko dituzte gastu eta sarreren balantzea, memoria eta dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko agiri guztiak, salbu eta abenduko lan-kostuen eta fakturen ordainagiriak, aurkeztu beharko direnak otsailaren 15erako.

de Subvenciones y en los siguientes plazos:

- Las ayudas para actividades concretas (actividades de un día, fiestas) deberán presentar la justificación completa en el plazo de 30 días desde la finalización de la última actividad.
- En las actividades anuales, antes del 15 de enero del año siguiente, se deberá de presentar el balance de gastos e ingresos, la memoria y toda la documentación justificativa de la subvención, excepto los justificantes de pago de las facturas y costes laborales del mes de diciembre que deberán presentarse antes del 15 de febrero.

**12. OINARRIA. Ez betetzea, dirua itzultzea eta zehapen espedientea.**

Jasotako kantitateak itzultzea eta dagokien atzerapen interesa eskatzea bidezkoa izango da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan arautukako kasuetan, bai eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren edota oinarri hauetan jasotako baldintzak ez betetzeagatik.

Diru itzulketa egingo da Udal Ordenantzaren 25. eta 26. artikuluen arabera.

Halaber, ez betetzea, Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 27. artikuluaren arabera, arau-haustetzat jo daitekeenean, udalak dagokion zehapen espedientea izapidetuko du, ordenantzaren 28 eta hurrengo artikuluei jarraiki.

**BASE 12ª. Incumplimiento, reintegro y expediente sancionador.**

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del correspondiente interés de demora en los supuestos regulados en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones, así como por el incumplimiento de las condiciones establecidas en la Ordenanza Municipal de Subvenciones o en estas bases.

El reintegro se realizará conforme a los artículos 25 y 26 de la Ordenanza municipal.

Asimismo, cuando el incumplimiento pueda ser constitutivo de infracción conforme al artículo 27 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, el Ayuntamiento instruirá el correspondiente expediente sancionador, que se tramitará de acuerdo con los artículos 28 y siguientes de la Ordenanza.

**13. OINARRIA. Araubide osagarria eta interpretazioa**

Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan honako araubidea aplikatuko da: Dirulaguntzen Udal Ordenantza, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen erregelamendua.

Alkatetzak oinarri hauek modu egokian

**BASE 13ª. Normativa complementaria e interpretación.**

En todo lo no previsto o recogido en las presentes bases, las subvenciones se regirán por: la Ordenanza Municipal de Subvenciones, por la Ley 38/2003 General de Subvenciones y por el reglamento que lo desarrolla.

La alcaldía queda facultada para dictar

aplikatzeko eta interpretatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko ahalmena du. Eta horrek hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

cuantas órdenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de estas bases. Sus acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y serán ejecutivos desde su adopción.

**14. OINARRIA. Laguntzen izaera**

Laguntza hauek izaera administratiboa dute, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie Udalak kudeatzen dituen dirulaguntzekiko jurisdikzio-eskumena.

**BASE 14ª. Naturaleza de la subvención.**

Estas ayudas tienen naturaleza administrativa, correspondiendo a los Tribunales Administrativos la competencia jurisdiccional sobre las subvenciones gestionadas por el Ayuntamiento.

Astigarraga, 2026eko apirilaren 21ean. — Xabier Urdangarin Lasa, alkatea.

Astigarraga, a 21 de abril de 2026. —El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa.